

## **Araba Euskaraz jantzi da Foru Aldundia**

*Ramiro Gonzalez Arabako ahaldun nagusiak datorren asteburuan Laudion ospatuko den Arabako ikastolen jaiaren kamiseta ofiziala jaso du*

**Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 11.** Urtebetez kanpoan egon ondoren, Araba Euskaraz inoiz baino indartsuago itzuli da Lurraldera. Arabako ikastolen jaiak Laudion izango da ekainaren 20an, aurreikusitakoa baino urtebete geroago, eta, motorrak berotzeko, antolatzaileek Arabako Foru Aldundiaren Jauregira hurbildu dira gaur, kamiseta ofiziala emateko.

Ramiro Gonzalez Arabako ahaldun nagusiak hartu ditu Aiara Murga eta Jon Bengoetxea, Laudio Ikastolako presidente eta zuzendaria, eta zorte handia opa die, segurtasun neurriengatik formatu murriztua izango duen baina espero duten hitzorduari begira, berriro ere Lurraldean euskararen presentzia ospatzeko aukera ezin hobe izan dadin.

"Modu jendetsuan edo formatu txikian, jardunaldi honek gure hizkuntzaren erabilera aldarrikatzeko balio behar du, eta erabilera hori egunetik egunera handiagoa da eta euskarak Araban duen bilakaera positiboa dela erakusten du. Ziur nago denon artean benetako arrakasta lortuko dugula", azpimarratu du. Lexuri Ugarte Euskara eta Gobernu Irekiko zuzendaria, Liher Larrea Arabako Ikastolen Elkarteko presidentea eta Joseba Aginagalde Ikastola Jaietako arduraduna izan ditu ondoan.